

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 4153

*IRAGARKIA, 2022ko abuztuaren 8koa, Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordez-kariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 132 kV-ko d/c ST Abadiano-ST Azpeitia 2 eta ST Ormaiztegi-ST Abadiano 1 linea elektrikoaren Arrasate TA transformazio-azpiestaziorako sarrera berrituko dela Arrasateko udalerrian.*

Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak 10. artikuluan (2020-04-24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak 144. artikuluan (2000-12-27ko BOE) ezartzen dituzten ondorioetarako, eta testuaren azken xedapenetako lehenengoan, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikuluan eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikulutik 56.era (2013-12-27ko BOE) ezarritakoarekin bat etorritz, jendaurrean jartzen da instalazio hori, baita eskatzaileak nahitaez desjabetzekotzat jotzen dituen ondasunen eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakoa ere:

Esp.: 20-AT-Y-2022-00057.

- Eskatzailea: i-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.
- Kokalekua: Arrasateko udalerria.
- Aurrekontu osoa: 530.705,26 euro.
- Xedea: zirkuituen helduerak Arrasate TA-ra eta Arrasate TA-ren GIS posizio berrietara egokitzea eta Arrasateko inguruan dagoen sarearen maniobragarritasuna eta ustiapena hobetzea.
- Jarduketaren funtsezko ezaugarriak: egungo 132 kV-ko linea elektrikoaren (ST Abadiano-ST Azpeitia 2 eta ST Ormaiztegi-ST Abadiano 1 zirkuitu bikoitza) bi zirkuituak, Arrasate TA-ra sartzekoak, lurrazpira igarotzea.
- Proiektuak ukitzen dituen ondasunak eta eskubideak: iragarki honen eranskinean zehaztutakoak.

Onura publikoaren deklarazioa, aurretiatzko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena eskatzen dira.

Horren berri ematen da guztiek jakin dezaten, eta dokumentazioa aztertzeko aukera izan dezaten Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan (Easo kalea 10, 1. solairua, Donostia / San Sebastian), Elgoibarko Udalean edo webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/informacion-publica-de-proyectos-sobre-minas-y-energia/web01-a2energi/es/>. Egoki irizitako alegazioak bi aletan aurkeztu beharko dira Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritza honetan, gehienez ere 20 eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia / San Sebastian, 2022ko abuztuaren 8a.

Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkaria,  
AGUSTIN AROSTEGI ARTETXE.

2022ko irailaren 26a, astelehena

## ERANSKINA

Proiektuaren finka	Katastroa		Titularra	Zortasuna			Aldi baterako okupazioa (m <sup>2</sup> )	Izaera
	Poligonoa	Luzatua		Kanalizazioa	Erregistroak	Azalera (m <sup>2</sup> )		
				Luzera (m)	Azalera (m <sup>2</sup> )	Zk.	Azalera (m <sup>2</sup> )	
1	6	81	Gorosabel Ezkurra, M Aranzazu Gorosabel Fernandez, Juan Ramon Gorosabel Ezkurra, Purificacion Gorosabel Aramburuzabala, Aitziber Gorosabel Ezkurra, M Carmen Gorosabel Ezkurra, Jose M				535	Koniferoak
2	6	80	Gorosabel Iriondo, Francisco Javier Gorosabel Iriondo, Roman Gorosabel Iriondo, M Jesus Gorosabel Iriondo, Ana M Gorosabel Iriondo, Juan Jose				147	Koniferoak
3	6	64	Gorosabel Plazaola, Isabel				897	Koniferoak
4		S/C1	-	9	21		1064	Antzua
5		4369004	Euroarla, S.L.				40	Antzua
6		4369005	Ozaeta Fernandez, Javier Gonzalez Biain, Ana Isabel Rodriguez Rot, Miguel Zurutza Elorza, Jose Losada Diseinu Obrak, S.L. Gruas Garro, S.L. Iñarra Leibar, M Primitiva				81	Antzua